

Instalazio fotovoltaikoen abantailak ikastetxeetan ikusgai

Uhaina Atxotegi Alegria

Elhuyar / Basque Research • Euskal Herriko ikerketaren ataria

Euskal Herriko hainbat ikastetxetako ikasleek energia fotovoltaikoa zer den bertatik bertara ikusteko aukera izango dute datozen urteetan. Robotikerrek eta EEEK Solarview proiektua jarri dute martxan, eguzki-energiaren abantailak zein diren ikasleen artean zabaltzeko.

PROIEKTU HORREN BAITAN, HASIERA BATEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 50 IKASTETXETAN panel fotovoltaikoak instalatuko dituzte eta helburu nagusia horien abantailak azaltzea da. Horretarako, ikasleentzako hainbat ariketa eta joko prestatu dituzte energia-mota horretara ohitzen joan daitezten. Duela bi urte, hain zuzen, Euskal Energiaren Erakundeak, Eusko Jaurlaritzarekin batera, energia fotovoltaikoaren aldeko kanpaina bat hasi zuen: Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxetako teilatuetan eguzki-panelak ezarri nahi zituzten.

Ikastetxeen aukeraketa egiteko orduan, eskolek PRIMIA sare informatikoa zuten ala ez hartu da kontuan. Guztira, Bizkaiko 26 ikastetxe hautatu dituzte,



Bada eraikin osoa eguzki-panelez estaltzen duenik.

ARTXIBOKOA

*“EAEko
50 ikastetxetan
panel fotovoltaikoak
instalatuko dituzte
eta helburu nagusia
horien abantailak
azaltzea da”*

Gipuzkoako 16 eta Arabako 8. Momentu honetan, ikastetxe bakoitzeko teilatuan eguzki-panelak non kokatuko dituzten aztertzen ari dira.

Sentsibilizatzeko prozesua

Energia-mota horretara sentsibilizatzeko prozesua Solarview-ren hiru erabilerari esker lortuko da. Lehenik eta behin, ikastetxe bakoitzaren teilatuan biltzen den energia fotovoltaikoaren ekoizpen-datuak taula batean ikusten ahalko dituzte ikasleek era ulergarri batean.

Bigarrenik, taula horretan azaltzen diren datu horiekin irakasleek prestaturiko hainbat ariketa egin beharko dituzte, instalazio berriaren funtzionamendua ahalik eta ondoen ulertzeko.

Azkenik, web orri bat egongo da Solarview sistema erabiltzen duten ikastetxe denentzat eta produkzio fotovoltaikoari buruzko ikerketak egiten dituztenentzat.

Solarview-ren erabilera eta osagaiak

Sistema honek ikastetxe bakoitzaren balio energetiko eta ekologikoak neurtzeko aukera ematen du era zentralizatu edo lokal batean. Ikasleek Eguzkitik zenbat energia baliatzen duten jakiteko aukera izango dute, baita beren ikastetxean zenbat energia ekoizten duten edo zenbat CO₂ ez duten isurtzen ere. Horrez gain, sorturiko

FXIBOKOA



Gero eta etxebizitza gehiagotan erabiltzen da energia fotovoltaikoa.

energia fakturatzeko eta instalazio fotovoltaikoa kontrolatzeko aukera eskaintzen du sistema honek, kontagailu independente bati, Interneti eta posta elektronikoa esker.

Solarview sistema honako elementuek osatzen dute: bistaratze-etaula, energia-kontagailuak, komunikazio-sistemak, atzipen lokaleko softwareak, gainbegiratzeko eta urrutiko fakturazioko softwareak eta web aplikazioak.

“ikasleek taula batean ikusten ahalko dituzte beren ikastetxeko teilatuan biltzen den energia fotovoltaikoaren ekoizpen-datuak”

Ikasleek, beraz, baliabide horiei guztiei esker, energia fotovoltaikoa dituen abantailak zein diren era erraz eta atseginean jakiteko aukera dute.

www.basqueresearch.com



ROBOTIKER

Eguzki-panelen egoera ere zaindu egin behar izaten da.

TRUK
EUSKAL LINGUE




TOALLA-JOKOAK

3 TOALLAZ OSATUTAKO JOKOAK

- 35x50, 50x100, 70x140
- Koloreak: granatea, berdea, horia, urdina
- %100 kotoia
- 500 gr. m²

28 €

MAHAI-ZAPIAK



- %100 kotoia • Kolore urdina, gorria eta berdea
- Amantal-jokoa 160x200 eta sei aho-zapi

47 €

Amantal-jokoa 150x250 eta zortzi aho-zapi

58 €



deitu!

DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

3,69 €
BIDALKETA-GASTUAK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA